



AGINDUA, OSASUNeko SAILBURUARENA ETA SEGURTASUNeko SAILBURUARENA. HORREN BIDEZ, ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DA IGERILEKUETAKO ETA URETAKO ATSEDEN-EREMUETAKO IRIZPIDE TEKNIKO-SANITARIOAK ETA SEGURTASUNekoAK EZARTZEN DITUEN, ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IGERILEKUEN ETA URETAKO ATSEDEN-EREMUEN ERREGISTROA SORTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12.1 artikulua arabera, arlo horretan eskumena duen saileko titularrari esleitzen zaio arau-xedapena egiteko prozedura hasteko eskumena, eta agindu bat onartuz gauzatuko du.

Prozedura honetan, arau-proiektua Osasun eta Segurtasun Sailen eskumen materialak gauzatzea da, sail horien titularrek hasiera eman baitzioten arau-proiektua egiteko prozedurari, 2026ko uztailaren 8ko Agindu bateratuari jarraiki.

Lege horren 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, *"Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik"*.

Adierazitako guztiarengatik,

EBATZI DUT

Lehenengoa. - Aldez aurretik onartzea igerilekuetako eta uretako atsedeneremuetako irizpide tekniko-sanitarioak eta segurtasunekoak ezartzen dituen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko igerilekuen eta uretako jolas-eremuen erregistroa sortzen duen dekretu-proiektua.

Bigarrena. - Dekretu-proiektua prestatzeko prozeduraren izapidetzearekin jarraitzeko agintzea, hasteko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteizen, elektronikoki sinatzen den egunean.

OSASUNeko SAILBURUA

Alberto Martínez Ruiz

SEGURTASUNeko SAILBURUA

Bingen Zupiria Gorostidi

